



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

GEOGRAFIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

GEOGRAFÍA

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:
A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat. Testu, mapa, grafiko eta irudien iruzkinak edo kokapenak ondo eginak egotea hartuko da kontuan.
B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat. Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.
C multzoa (2 puntu): Testu koherente bat idaztea (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituen.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

- En esta prueba escrita **debes realizar 3 ejercicios.**
- Los ejercicios están distribuidos en tres bloques:
Bloque A (4 puntos): Elige una opción entre A1 y A2. Se tendrá en cuenta que los comentarios de textos, mapas, gráficos e imágenes tanto como la localización en los mapas estén bien realizados.
Bloque B (4 puntos): Elige una opción entre B1 y B2. Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.
Bloque C (2 puntos): Elaborar un texto coherente (entre 6 y 10 líneas) en el que se relacionan como mínimo 4 de los 6 conceptos que se presentan.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas del examen



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

A MULTZOA. (4 puntu)


A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat

A1.- Egin ezazu Espainiako biztanleria-dentsitatearen maparen iruzkina. (4 puntu)

Testuingurua: “Hegoaldeko Europako herrialdeetan eta, zehazki, Espainian eta Italian, migrazio-fluxuek desoreka handiak dituzte lurraldeen artean. Gainera, eskualdeen arteko kontraste sozioekonomikoek, nahiz eta aurreko garaietan baino garrantzi txikiagoa izan, faktore erabakigarria izaten jarraitzen dute bi herrialdeetako migrazio-dinamiken definizioan eta intentsitatean (Reynaud et al., 2020). Horrek dualtasun hautemangarri bat ekarri du; izan ere, gutxien garatutako zonetan migrazio-tasa garbi txikiak erregistratu dira, eta eremu progresiboenetan eta dinamikoenetan, berriz, immigrazioaren zatirik handiena, barnekoa zein kanpoko, eta horrek esan nahi du hazkunde demografiko handia izan dela, tokian tokiko desberdintasun handiekin. Espainian, dikotomia horrek penintsulako barnealdeko eremuen arteko kontrastea ekarri zuen, Madril, Katalunia, Mediterraneoko kostaldea, Andaluzia Beherea eta uharteetako eremuen artean.” Marbán Martínez, L., Recaño, J., & Reynaud, C. (2025). Exploring the components of recent population growth in southern European municipalities: Spain and Italy in comparative perspective. Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles, (103). <https://doi.org/10.21138/bage.3589>

Espainiako biztanleria-dentsitatearen mapa. 2023

Espainiako batezbestekoa: 95 bizt./km²





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

GEOGRAFIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

GEOGRAFÍA

A2.- Paisaia honen iruzkina egin. (4 puntu)



B MULTZOA (4 puntu)

B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat

B1.- Zer ezaugarri dituzte Espainiaren barnealdeko nekazaritza-abeltzaintzako eremuek eta baso-eremuek? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. (4 puntu)

Testua: “Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) EBko herrialde guztien politika erkidea da, eta batez ere nekazaritza-sektoreari eta landa-inguruneari zuzenduta dago. **Espainiako NPBren 2023-2027 Plan Estrategikoaren** helburua nekazaritzaren, elikaduraren eta landa-eremuen garapen iraunkorra da, gizartearen elikadura-segurtasuna bermatzeko, sektore lehiakor baten eta landa-ingurune bizi baten bidez. Landa-garapeneko neurrietarako aurreikusitako urteko behin-behineko gastu publikoa 1.762 M €-koa da (1.080 M €-ko aurrekontua, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsarena – FEADER–). Laguntza horiek lurralde-garapen orekatuari laguntzen diote, landa-



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

komunitateetan enplegua sortuz eta bizi-baldintzak hobetuz. Gastu horren % 47,8 ingurumen-arloko neurriei dagokie: nekazaritza-ingurumeneko neurriak eta nekazaritza ekologikoa, ingurumen-helburuak dituzten inbertsioak, muga naturalak edo bestelako muga espezifikoak dituzten eremuetarako laguntzak, desabantaila espezifikoak dituzten eremuetarako laguntzak.”

https://www.mapa.gob.es/es/pac/pac-2023-2027/resumen-pac-es_tcm30-627662.pdf

B2.- Zein izan da turismo-sektorearen bilakaera EAEn? Zer pisu du gaur egun turismo-jarduerak EAEn? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. (4 puntu)

Testua: *“Turismo hartzailearen aurrean gizarteak duen pertzepzioa. Txostena 2024.”*

“Alde batetik, ia herritar guztiek, kontsultatutako hamar pertsonatik bederatzik, uste du turismoaren sektorea ekonomiaren eta enpleguaren garapenerako motorra dela. Baieztapen hori irimotasun handiagoz adierazten du % 51,3k, oso garrantzitsua dela irizten baitio. Ideia horren inguruan ez dago desadostasunik, ezta bizilekuaren edo bizitegi-eremu geografikoaren arabera ere. Halaber, gehiengoaren arabera (% 53,0), turismoak eragin positiboa du bere egunerokotasunean. % 27,9k ez du uste turismoak eraginik duenik bere egunerokotasunean, eta “ez positiboa, ez negatiboa” adierazten du. Eta % 11,9k bere egunerokotasunean eragin negatiboa duela dio. Pertzepzio horretan, norbera bizi den udalerriaren jomuga turistikoaren izaerak zerikusi handia du, eta asegabetasun maila handiagoak aurki daitezke Donostiaren moduko turismo-ingurune heldu eta sendotu batean. Hemen, pertsona egoiliarren % 36,3k bisitari eta turisten presentziak bere egunerokotasunean eragin negatiboa duela irizten dio.”

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/obs_tur_est_inf_sociedad/eu_def/adjuntos/132615_ConsideracionesFinales_Ano2024_EU.pdf

C MULTZOA (2 puntu)

C.- Idatzi testu koherente bat (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituen:

- Klima
- Eguraldia
- Eguraldi mota
- Ekintza-gunera (antizikloia eta depresioa/borraska)
- Aire-masa
- Arrisku naturala